



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2007-12-19**

V. URTEA 1.317. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

BARBARA GOENAGA AKTOREA

«Poztekoa da lanbidekoek zugaran pentsatzea, oparirik handiena da»

ALKIZA 'Oviedo Express' filman egindako lanarengatik Goya saria jasotzeko aukera izango du alkizarrak

«GUSTURA» Aktoreak aitortu duenez, «ez nuen saria espero; etxean ikasten nengoela jaso nuen berria» 4



Samaniego-Orixe ikastetxeko ordezkariak, Oria Guabas GBekoak eta Udalekoak, atzoko aurkezpenean. E. EZEIZA

SAN SILBESTRE KROSEKO DIRUA KOLONBIAKO ESKOLA BATENTZAT

TOLOSA Hamargarren aldiz egingo dute elkartasun lasterketa, hilaren 31n; aurten, estreinakoz, beteranoen maila antolatu dute 2



Atzo egin zuten sinadura ekitaldia, Asuncion erietxean. ESTI EZEIZA

Herri kirolekoei prestakuntza emateko akordioa sinatu dute

TOLOSA Udalbidek eta Orekik sinatu dute Asuncionen; probak bertan egingo dizkiete 2

AITOR MENDILUZE GIPUZKOAKO TXAPELKETAKO IRABAZLEA

«Nire dohainetako bat erregulartasuna dela uste dut»

IRURA Entzuleengan iritea zuen helburu bertsolaritzako finalean; «eroso» aritu zen 3

Laburrak

Gabon kantetako entsegua, bihar 21:00etan

IKAZTEGIETA • Bihar, Ikaztegieta liburutegian, 21:00etan, Gabon kantetako entsegua egingo dute. Larunbatean berriz, leku berean, 15:30ean. Kantu hauek hilaen 24an abestuko dituzte, Olentzero-
ren etorrerarekin batera.

Laskoraingo abesbatzen Gabonetako saioa, etzi

TOLOSA • Urtero bezala, Laskorain Ikastolako bi abesbatzek Gabonetako emanaldia eskainiko dute Sakramentino elizan. Emanaldi hau etzi izango da, 19:30ean. Hemen, Gabonetako abestiez gain *Abesti japoniarra*, *Titanic*, *Loriak udan intza bezala*, *Dubula* etabar abestuko dituzte.

'Conversaciones con mi jardinero' ikusgai

TOLOSA • Asteburuan, Leidorren *Conversacion con mi jardinero* eta *Bee Movie* filmak izango dira ikusgai. Lehendabizikoa, larunbatean 19:30ean eta 22:30ean, eta igandean 19:30ean eskainiko dute. *Bee Movie* ikusteko aukera berriz, igandean, 17:00etan izango da.

Aisialdi taldeek jaiotza lehiaketa antolatu dute

TOLOSA • San Bernardo, Ttnttek, Kazkabarra, Kale Hezitzaileak eta Kirikiño taldeek jaiotzen lehiaketarako deialdia luzatu dute. Izen-emate lekua Kultur Etxeko gazte informazio bulegoa izango da. Interesatuak urtariraren 4a bitartean aurkeztu beharko dituzte jaiotzak.

Zuzenketa. Atzo argitaratutako Tolosa CF futbol taldearen partidaren inguruko albistean oker bat zegoen. Asteburuan jokaturako partidari irabazi egin zuen 3-1, eta ez galdu. Nahiz eta emaitza berdina izan.



Tolosako Udala

IRAGARKIA

Gobernu Batzarrek, 2007ko abenduaren 3an hartutako erabakiaren bitartez, hasierako onespina eman dio honako proiektu honi zenbait baldintzarekin: Zelai ibaien ibilgua berreskuratzeko Proiektua, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak sustatua. Proiektua, interesatuak beren interesen aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, HOGI EGUN (iragarki honen azken argitaratzea egin eta biharamunetik kontatzen hasita) jendaurrean jarritako egongo da, Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Lurzoruan eta Hingintzari buruzkoaren, 1962 artikuluek xedatuaren arabera.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berrrian, Hitzan eta Diario Vasco egunkarietan argitaratuko da. Espedientea, inork aztertu nahi badi, Plaza Zaharra, 6-B-ko Hingintza Bulegoan egongo da, aipamenerako epean. Megazio edo erreklamazioak Alkateari zuzendu behar zaizkio eta Udaltzeko Sarreara Erregistroan aurkeztu.

Tolosan, 2007ko abenduaren 17an. ALKATEA.



Samaniego-Orixe ikastetxeko ordezkariek, Oria Guabas GBEkoak eta Udalekoak, atzoko aurkezpenean. E. EZEIZA

Urteari amaiera emateko, X. aldiz ospatuko da San Silbestre Elkartasun krosa

Kirola • Kolonbiako eskola bati laguntzeko erabiliko da egun horretan bildutako dirua; aurten estreinakoz, beteranoen maila dago

ERREDAKZIOA

Azken urteetan bezala, hilaren 31n urteari amaiera emateko, San Silbestre Elkartasun krosa egingo da Tolosako kaleetan barna. Izenak berak dioen bezala, elkartasuna adieraztea eta beharra dutenei laguntzea izango da egitasmoaren helburu nagusietako bat. Hala, lasterketa honetan bilduko den dirua, Oria Guabas GKEren bitartez, Ko-

» ORDUTEGIA

- **16:00.** Benjamin neskak.
- **16:15.** Benjamin mutilak.
- **16:30.** Alebin neskak.
- **16:45.** Alebin mutilak.
- **17:00.** Sari banaketa, benjaminak eta alebinak.
- **17:30.** Infantil neskak, mutilak, nagusiak.
- **18:30.** Sari banaketa, infantilak eta nagusiak.

lonbiara bidaliko da. Bertako Guillermo Valencia eskola *Que viva la montaña* proiektuarekin ari da lanean, eta honen baitan *Bibliomula* izeneko egitasmoa dago. Ekimen honekin, mandoak, astero, man-

doliburuzainaren laguntzaz, herri herri ipuinak eramango dituzte. Horrela, bertako haurrek, ipuinak eta liburuak erabiltzeko aukera izango dute. Honetarako, lasterketaren irteera eta helmuga puntua den Zerkausian, dirubilleta egingo da.

Atzo goizean egindako aurkezpenean Ivan Gallego, lasterketaren koordinatzaileak azaldu bezala, «abenduaren 31ko krosa herri lasterketa bat da, edozeinek, pixka bat prestatuz gero, egin dezakeena». Horregatik, heldu nahiz ume, proban parte hartzera gonbidatzen dituzte antolatzaileek.

Berrikuntza gisa, aurten, beteranoen mailako lasterketa ere egingo

da. Beteranoen talde hori, 35 urte-tik gorako parte-hartzaileek osatuko dute, nahiz eta hauek, gainontzeko helduekin batera atera eta ibilbide bera egin.

Aurtengo krosa

Duela hamar urte, krosa egiten hasi zenean, 13 urte bitarteko gaztetxoek bakarrik har zezaketen parte. Aurten berriz, ume, gazte nahiz helduak atera ahal izango diralasterketan.

Izena ematerakoan, kamisetak eta karpetak banatuko dira. Nagusiak, lau lagunez osatutako taldeetan nahiz banaka atera daitezke. Lasterketak arratsaldeko laueta hasiko dira. Ibilbideari dagokionez berriz, iazkoaren berdina izango da. Gallegoren esanetan, «aurreko urteetan beste ibilbide bat egiten zen, eta honekin arazozak zeuden. Hala, joan den urtean aldaketak egin genituen eta hau egokia dela uste dugu». Parte-hartzaileak Zerkausitik abiatuko dira, eta toki berean amaituko dute. Helduek eta beteranoek bi itzuli eman beharko dizkiote ibilbideare, eta infantilek, bat.

Sariei dagokionez, eskolarte artetako lehenengo hamarrek garai-kurra jasoko dute eta denek kamiseta eta karpeta bat. Heldu guztiek ere kamiseta eta karpeta bat jasoko dute. Garai-kurra berriz, lehenengo bostei emango diete. Honez gain, hainbat zozketa ere egingo dituzte. Besteak beste, bi eta lau laguntzetako afariak, kirol bonoak eta bi medikuntza azterketa. Aurten garai-kurra berezia emango diote Armando Roca atletari, bere ibilbide atletikorengatik.

Izen-ematea hilaren 31n bertan, 15:00etan egin ahal izango da, Zerkausian.

Udalbide eta Orekik akordioa sinatu dute

Kirola • Akordio honen ardatz nagusia herri kiroltako kirolarien prestakuntza da; 'Kirol-etik' izena du egitasmo berriak

ESTI EZEIZA

Oreki Fundazioak kirolarien prestakuntza fisiko eta etikoan dihardu. Aurten Udalbiderekin egindako hitzarmenean, herri kirolen prestakuntza dute ardatz. Akordio hau 14.000 eurotako da.

Kirol-etik egitasmoa bizimodu osasuntsua eta aktiboa bultzatzeko, dopajeari aurre hartzeko eta kirolaren balioak sustatzeko programa bat da. Portaera etiko egokiak erakutsiz, kirol errendimendu handialortzeko. Beraz, hiru ardatz nagusi ditu egitasmoak: osasuna, errendimendua eta etika. Manu Gonzalez, Oreki Fundazioko Kirol Mendikuntzako arduradunaren esanetan, «kirolari gazteek, gehie-



Udalbide, Oreki eta Asuncionezko ordezkariek kirolariekin batera. E. EZEIZA

netan, errendimendua handitzea bilatzen dute, eta bide horretan, ez diote arretarik jartzen osasunari, eta etikari». Horregatik, hiru oinarri hauen oreka bilatu nahi dute fundazioek.

Helburu hauek lortzeko, hiru urrats prestatu dituzte *Kirol-etik* egitasmoaren baitan. Alde batetik, kirolariaren eta entrenatzaileen prestakuntza teorikoa eta tekni-

koa. Bestetik, kirol jardunbide ego-kiak bultzatzea, eta azkenik, aholkularitza eta ikuskapena. Hau da, kirolariaren kirol fisiologian eta kirol medikuntzan hezitzea eta mediku kontrol zehatzak egitea. Azken hauetako proba batzuk, Tolosako Asuncion Klinikari gauzatuko dituzte kirolariak. Hori dela eta, hitzarmenaren sinaketa erietxean bertan egin da.

Proiektuaren oinarriak

Antolatzaileen esanetan, «*Kirol-etik* proiektua integrala da». Ekimenaren erronka nagusiak diragizartearen sedentarismoa aldatzea eta dopina nahiz etikoki zuzenak ez diren jarrerak aldatzea. Honebestez, hiru zutabean oinarritzen dute ekintza, kirolean: osasuna, errendimendua eta jarrera etikoa. Hiru ideiei garrantzia bera emanez. Hau lortzeko hezkuntzari ematen diote pisua. Horretarako, 2001etik onra, eskolak, mintegiak... antolatzen dituzte. Honekin lotuta, kode etiko bat prestatu dute kirolarientzat, entrenatzaileen-tzat eta gurasoentzat.

Honebestez, finkatutako pausoak jarraitzen dituzten kirolariak K-labela ematen diete. Hau oinarri baita aurrera begira, maila handiagoko titulak jasotzeko. Orain arte, batez ere txirrindulariekin egin dute lan Udaltzekoek, baina hemendik aurrera, herri kiroltako kirolariak egingo dute lan.

E Elkarriketa

AITOR MENDILUZE › Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren irabazlea

Bertsolaritza»

G puntuaren maila gorenera iritsi da Aitor Mendiluze. Entzuleengana iristea zuen helburu, eta eroso aritu zen Illunben bertsotan.

BEÑAT ZAMALLOA (BERRIA)

Bertsolaritzari emana pasatzen du eguna Iruran bizi den Aitor Mendiluzek (Andoain, 1975), bertsotan ez bada, ikastetxeetan ahoz kotasuna erakusten. Faboritoen artean ekin zion Txapelketari, eta Gipuzkoako bigarren eskuratu zuen. Biharamunean, eguna prentsarekin «topera» eman zuen. Saioari dagokionez, «lasai eta asentatzen hasita». «Sentsazio polita» utzi dio txapelak.

Plazaz plaza zabiltzan bertsolaria izanda, zer lortu duzu txapelarekin?

Uste dut lorpena kanpora begira beharrean barrura begira izan dela. Jendeak ezagutzen gaitu, garenak gara, eta kanpora begira zer lortu dezakegun edo zenbat fama emango digun horrek baino gehiago, konfirmazio bat da: banabil plazan eta nabilen horrek zerbaiteko balio du, jende bati gutxienez gustatu egiten zaio edo eskertzen du. Sentsazio hori izan da behintzat.


Saioaren aurretik egindako adierazpenetan, helburua jendearengana heltzea zela aipatu zuenuen. Helburua lortu zuenuen?

Eroso sentitzen nintzen oholtzan; eroso sentitzen nintzen ni eta eroso sentitzen ginen denok, uste dut. Nahikogiropolita zegoen. Ez nuke esango koadrila giro zegoenik, baina bai talde sentsazio bat, denok batera aurrera aterako dugulako sentsazioa. Alde horretatik, nire burua egoera onean aurkitzen nuen, bertsotarako gogoarekin. Ariketa bat bukatzen nuenean ea hurrengora zer zeterorren pentsatzen nuen; aldi berrian, baita besteek zer egiten duten ere. Egiteko eta besteena gozatzeko gogoarekin egon nintzen.

Erosotasuna izan daiteke finaletarahituta egoteagatik?

Finaletaraz ez da inor ohitzen eta, gainera, ez nuke ohitu nahi. Bakotza da desberdina, berezia. Beti da une desberdin bat, eta norbera ez dago beti ere berdin. Eroso sentitzea nire bertsokeragatik eta bertsolaritzako nire mementoagatik. Azkenaldian, gustura nabil plazan, eroso nabil, eta nire buruarekin konfiantza daukat. Uste dut horrek eragin handiagoa duela. Izan ere, azken finala duela bi urte izan zen, eta bi urtetan gauzak asko aldatzen dira, gehiago da egiten duzun lan horrekin nola zoazen.

Nola ikusi zuenuen zeure burua finalean?



GIPUZKOAKO BERTSOLARI ELKARTEA

«Erregulartasuna badela nire dohainetako bat uste dut»

Ariketa guztietan sentitu nintzen gustura, nahiz eta jakin batzuetan beste batzuetan baino hobeto ari nintzela. Erraz, erlaxatuta aritu nintzen, eta agian horregatik ez nuen beste batzuetan hainbeste findu. Puntu erantzunean motzegi izan zelako sentsazioarekin gelditu nintzen: bi puntu jarri, nahiko gustura erantzun nituen, eta beste hiru bat egingo nituzkeela pentsatu nuen.

Buruz buruko arteko ariketak amaituta, aurrera egiteko aukera zenuela iruditu zitzaizun?

Ez neukan garbi. Aukera izan nezakeela iruditzen zitzaidan, baina beste bostek bazutela ere bai. Gainera, oholatzatik ez da garbi edukitzen. Ari zara, baina ez dituzu zure reakondoneurtzen, besteakentzuten eta epaitu ere ez.

Aurrera egingo zuten bi bertsolaria zein izango ziren ez zen oso argi, seinale ona da hori?

Ez balitz horrelako berdintasunik egon, ez zuen inongo graziarik izango. Gauzak berdinduta joateak pronostikoak zabaltzen ditu, ez du hain markatuta uzten nork irabaz lezakeen buruz burukoak haserako, eta ekartzen du bertso bat koitzak beste pisu bat, beste dimentsio bat hartzea.

Oro har, saioa nolakoa iruditu zitzaizun?

Saioa zoragarri. Giro aldetik, lekua, jendearen jarrera... Dena zoragarri.

Txapelketako saioa eta plazako saioa bereizi egiten dira; bateragarriak ez direlako?

Zenbaitek ez du bateragarri ikusten. Nik, aldiz, uste dut, igandeko finalak horixe erakutsi zuela, bertsotan txapelketan egin daitekeela bertso saio bat bezala planteatuta eta ez beste gauza arraro bat bezala. Era askotako bertsozaleak dauka, batzuk oso plazakoak, beste batzuk teknikari gehiago lotuak, baina nahiko jaialdi moduko saioa izan zen. Edukietan oinarritu zela gehiago. Azken finean bertsotan egin behar da.

Anjel Mari Peñagarikanok txapelketak bertsolaritzaren egoeraren ispilu edo espejismo den galdetu zuen. Erantzunik baduzu?

Garbi daukat egoeraren argazki polit bat dela; ez du egoera islatzen, baina islatzen duena egoeraren zati bada. Ez dut uste inongo gezurrik edo espejismorik dagoenik. Iruditzen zait hor dagoena erreala dela. Azken finean, jende asko dago honen atzetik, betiko zaleek hor jarraitzen dute, bertsolariak maila altuan dabilzala eta, batez ere, lan oso handia dagoela horren atzean, askotan ikusten ez dena.

Lan hori bere fruituak ematera iristen da.

Nola definituko zenuke zeure burua?

Nire burua noranahiko bezala definitzen dut. Gustatzen zaizkit afariak eta gustatzen zaizkit jaialdiak, gustatzen zaizkit koplak eta habanera. Gainera, tartekatzea gustatzen zait. Ez dakit gaitasunez hala naizen, baina jarreraz behintzat noranahikoa naiz. Uste dut nire dohainetako bat badela, erregulartasun dezentean aritzea.

Zein dira bertsotarako gaiak osatzeko erabili ohi dituzun iturriak?

Saioa, gaia, egoera edo lekua dira gaiak janzteko erabili ohi ditudan bideak. Gero, hitzak edota ideiak leku guztietatik hartzen ditut: irratiak, musika entzuteak, aiton-amonekin izaten ditudan elkarriketetatik. Leku guztietatik ikasten da, eta, gainera, ona da leku guztietatik harrapatzen joatea.

Egungo bertsolariak hobeak direla esan ohi da. Horrela da?

Nik ez dakit hobeak diren. Lehengo batean, Durangoko Azokan, batekesaten zidan 60ko hamarkadaz gero, bertsolaritza goitik behera zihoala, jada ez dela Uztapide eta horrelakorik. Esango nuke osoa goak direla, teknikoki bai, eta edukietan ere bai. Beste gauza bat da eduki batzuetan eta lan maila ba-

tzuetan ez dutela parekatzerik haiekin, haiek gurekin ez daukaten bezala. Hala ere, ez naiz konparaketa zalea. Garai bakoitzak du bere bertsogintza, zenbaitetan, iruditzen zait bertsogintza garairen aurretik ere ibili dela. Baina ez nioke erreparatuko lehengoak eta oraingoak parekatzeari. Zer ziren hobeak lehengo kotxeak edo oraingoak? Zertarako den arabera. Bizi garen garaian aritzen gara, eta horren arabera neurtu behar da.

Bertsotan hasi zinenetik asko aldatu da bertsolaritza?

Entzulea asko gaztetu da. Plazak aniztu dira edo behintzat gehiago zabaldu dira. Saioetan bertsolari hasi berrien eta ibilien arteko desberdintasunik ere ez da izaten gaitan. Agian, orain, erosoagoa da plazara doanarentzat bertsotan aritzea.

Zer eragin izan du zuegan bertso eskolak?

Denean eragin du. Guk bertsotan hor ikasi genuen, hortik abiatu ginen, hor ari gara eta hor transmititzen dugu dakiguna. Ez da bakarrik bertsogintza, da ilusio bat, da gauzak egiteko modu bat, kultura ulertzeko modu bat.

Bertso irakasle izateak trebatzen laguntzeko balio duzu?

Ez pentsa. Ez dauka zerikusi handirik gelan lantzen dugunak gero plazan egin behar dugunarekin; gauza bera da, baina ez da gauza bera. Era berean, nekerako bidea ere eman lezake, bertsoarekin egun osoan, astero, egunero-egunero ibilita nekatu ere egin lezake. Gauza bakoitza bereizten jakin behar dela iruditzen zait.

Haurrekin aritzen zaren aldetik, nola ikusten duzu etorkizuna?

Ikusten dut gazte asko dagoela hor, gehiago izan daitezkeela eta pixka bat horretan lana egiten ari dela. Etorkizuna, itxaropentsu.

Etorkizunari begira, bertsolaritzan proiekturik baduzu?

Oraingoz bertsotan aritzea inportantea. Eta gero, bertsolaritza erakusten jarraitzea, gaztetxoekin kontaktuan. Horiek biak egiten asmatuko banu, ez litzateke gutxi.

Gabonetan plaza dezente izan ohi da. Plaza asko espero al dituzu zuk?

Kasu honetan, txapelketa amaiera da, eta txapelketak beti ekartzen du horrelako putzaldi bat. Bai, plaza dezente. Urrikitoporrak amaitu arte dezente ditut.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Zumardi Txikiaren parean (Santa Klara). 2 logela, sukalde handia, ganbara eta berogailuak. Hormigoizkoa. Uzturre aldera ikuspegiak. 665 70 86 35.

■ **Etxebizitza.** 90 m²ko etxebizitza salgai Lazkao. 689 99 76 74.

E **Elkarrizketa**

BARBARA GOENAGA ▶ Aktorea

«Poztekoa da lanbidekoek zugan pentsatzea»

Alkiza » Hamar filmatik gora egin ditu dagoeneko Barbara Goenaga aktore alkizarrak; 'Oviedo Express' pelikularekin Goya saria jasotzeko aukera izango du.

IMANOL GARCIA

Komunikabide ugariri erantzuten ari da egunotan Barbara Goenaga (Alkiza, 1983). *Oviedo Express* filmarengatik aktore berriaren izendapena jaso du Espainiako Zinema Akademiaren Goya sarietarako.

Espero zenuen izendapena jasotzea?

Ez nuen batere espero. Gustatuko litzaidakena da lanak ateratzea. Ez nintzen gogoratzen atzo [herenegun] egiten zirela publiko izendapenak. Etxean nengoen ikasten eta horrela jaso nuen berria.

Oviedo Express filmako lanarengatik izendatu zaituzte. Nolako da egiten duzun lana?

Carmelo Gomezek egiten duen pertsonaiaren eta nire pertsonaiaren inguruan mugitzen dira beste guztiak, baina denbora aldetik denok hartzen dugu parte dezente filman. Ezin daiteke esan protagonista bakarra denik. Oso korala da pelikula.

Aktore berriaren izendapena jaso duzu. Gaztea izateagatik da?

Derrigorrez ez. Hori produktorearen arabera da, berak erabakitzen duenaren arabera. Niri aktore berriaren izendapenerako aurkeztu ninduten.

Gustura izendapenarengatik?

Bai, poztekoa da, batez ere zure lanbidean aritzen direnek zugan pentsatu dutelako. Hori da niretzat opari handiena. Halere ez da hain garrantzitsua. Nik ez dut hoberena dela lanean jarraitzea. Hori da saririk handiena aktore batentzako. Zuzendariarengatik ere poztzen naiz, filmak zazpi izendapen jaso dituelako.



HITZA

Izendapen honek atek irekiko dizkizu?

Batek daki. Badaude aktore asko inoiz izendatu ez dituztenak eta beti lanean dabiltzanak eta oso onak direnak. Gero daude beste batzuk saria irabazi dutenak eta gero ez dutena ezer gehiago egin. Pentsatzen dut gaizki ez dela etorriko. Baina pixkat kontu subjektibo da.

Eta lan kontutan, nola zabilta?

Egia esan oso ondo, ezin naiz kexatu. Ez da erraza aktore batentzat horrela lanean ibiltzea. Garai kontua izaten da. Badakit zer den hiru urte batere edo ezer gutxi egiten egotea. Hau eta gero pentsatzen dut etorriko direla gauza gehiago. 24 urte ditu oraindik, pentsatzen dut denetarako denbora izango dudala.

Madrilen urte batzuk daramatzazu. Aktore izateetik bizitzeko hara joan beharra dago?

Bakoitzak nahi duenaren arabera da hori. Garbi dago Madrilen lan

gehiago dagoela, baina aktore gehiago daude ere. Errazagoa da lana ateratzea. *Goenkalen* sei urte egon nintzen eta hiru urtetatik nabilt mundu honetan. Horkoa eza gutzen nuen gutxi gorabehera, gaztea nintzen eta gogoia nuen hortik atera eta etxetik kanpo ibiltzeko, probatzeko. Ondo joan zitzaidan eta gustura nago. Hor ere egiten dira gauzak, baina errezagoa da hemen bizitzaren egonez gero.

Zineman, antzerkian eta telebistan aritzen zara.

Batzutan esaten didatenean, «zer ondo aukeratzen duzu», ez daukagu aukera handirik egiterik asko. Etorren zaiguna izaten da. Hontan telebistari esker hasi nintzen, gero zineman atera zitzaidan zer bait, gero antzerkitik deitu zidaten eta hor egon nintzen beste hiru urte eta berriz ere zinematik deitu didate. Proiektu onak hiru medietan daude. Ateratzen dena eta gustuko dudana, hori egiten dut.



Atxulondo kultur etxean dago eskolaren argazki erakusketa. I. GARCIA

25. urteurrenaren ospakizunak abian

I. GARCIA

Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eskola bere 25. urteurrena ospatzen ari da ikasturte honetan. Herenegun arratsaldean egin zuen ospakizunaren hasiera ekitaldia. Eskolako ikasleek agurra dantzatu zuten eta Beñat Barandiaran ikasle ohiak espreski urteurrenerako egindako abestia kantatu eta dantzatu zuten.

Bestalde, egun hauetan, ostirala arte, eskolako 25 urteak argazkietan ikusteko aukera dago Atxulondo kultur etxean. 400 argazki inguru ikus daitezke 20 paneletan. Horrez gain, 1.000 argazki inguru ere ikus daitezke proiektore baten bitartez. Argazki erakusketaren ordutegia 17:00etatik 19:00etara da.

Gabonetan ikastaroak egiteko aukera

ERREDAKZIOA

Anoetan Gabonetarako hainbat ikastaro antolatu dituzte, guztiak doan. Gazte eta helduentzako talo ikastaroa Kuku elkartearen izango da. Egunak eta orduak adosteko bilera bat egingo da partaideen artean. Barreterapia ikastaroa hilaren 27an, 10:00etatik 12:00etara, edo urtarrilaren 2an, 18:30etik 20:30era egingo da.

Xake ikastaroa astean bitan ordubetez egingo dute. Aukerak: hilaren 26an eta 28an, urtarrilaren 2an eta 4an, eta ordutegi hauetan: 10:00-11:00, 11:00-12:00, 12:00-13:00, 15:30-16:30, 16:30-17:30.

Antzerkia astean behin 2 orduz egingo dute, hilaren 27an eta urtarrilaren 3an, 16:00etatik 18:00etara. Izena ematea, udal etxean edo kiroldegian, hilaren 21a arte.

Laburrak

Gabon saskien zozketa Alkartasuna biltokian

ANOETA » Alkartasuna biltokiak Santo Tomas egunean, hilak 21, Gabon saskiak zozketatuko ditu elkartearen bertan dauden bazkideen artean, 18:30etik aurrera.

Ohiko batzarra gaur Anoetako Ikastolan

ANOETA » Anoetako Ikastolak gaur ohiko batzarra egingo du Ikastolan bertan. 19:30ean hasiko da bilera eta beste gaien artean aurrekontu-tuei buruz ariko dira.

txokoa

Sarrera pare bat

Tolosako Orfeoia
Orfeón de Tolosa



Eguberriako
Kontzertua

Irabazlea:

• Karmen Iraeta Arsuaga (Tolosa)

Sarrerak leihatilan izango dituzu

abenduaren 20an
osteguna • 20:30ean
Tolosako Leidorren

HITZAren harpidedunentzat abantailak

5 sarrera pare deitu eta eskuratu

Txirri, Mirri eta
Txiribiton
junioiek



Irriz Irri saioa

abenduak 22 larunbata • 17:00etan Tolosako Leidorren

Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: **943 65 56 95**

'Gabonetan jolas eta ikus' egitarau berezia antolatu dute haurrentzat

Kultura » Ikuskizunak,
zinema eta jolasak izango
dira gaztetxoentzat Leidor
aretoan; 17:00etan
izango dira saio guztiak

dela. Bigarren filma *La Brujula Dorada* da, eta hilarren 29an eta 30an izango da ikusgai. *La Materia Oscura* Philip Pullmanen trilogiaren lehendabiziko edizioan oinarriturikoa da.

FRREDAKZIOA

Gazteria Departamentuko urterot antolatzen duen haurren Gabonetako egitarauak aldatetako eta hobekuntzak izango dituzte aurtengogan. Hiru elementu elkartuko dituzte aurtengo ekimenak, ikuskizunak, jolasak eta zinema, «guztiak zein baino zein erakargarriagoak». Hasteko, Txirri, Mirri eta Txiribiton JR-en *Irriz irri* ikuskizuna izango da larunbat honetan. Gainerako saio guztiak bezala, 17:00etan izango da emandakia Leidor aretoan. Leidorreko lehiatilan nahiz Kutxaren bidez (Interneten eta Kutxanet-en) erosi ahalko duzate txartelak 3 euroren truke, eta ikuskizun guztiatarako abonua 10 euroan eskuratu ahaliko da. Puzgarrien kasuan, Zerkausion jarriko dituzte, eta doan izango da.

Txirri, Mirri eta Txiribiton JR

Aski ezagunak dira gurean hogeita hamairu urte pasatxo baitaramatzate alaitasuna eta poza zabalzten gatzetxoan artean. Hala, etorkizuneko pailazo hirukotea prestatze-ari ekin diote: Mikel Otaegi, Xabierren semea, Txirri Junior da; Katalin Ansorena, Jose Ignazioren alaba, Mirri Junior bihurtu da; eta Fernando Ruiz Txiribitun Junior.

'Bee movie' eta 'La Brujula Dorada'

Zinemak ere protagonismoa izango du egitarauan. Hala, igande honetan, *Bee Movie* animaziozko filma izango da ikusgai, eta ziur erleiei buruz dugun iritzia aldatuko



Haur Kabareta hilaren 27an izango da ikusgai. Leidorren. HITZA

'Txitxarra Ta Iñurria'

Ohiko istorioan oinarrituriko antzezlanak izango da ikusgai. Euskaraz izango da txitxarraren eta inurriaren arteko ipuinaren emanaldia, hilaren 26an.

Haur Kabareta

Agerre antzeri taldearen produkzioa hilaren 27an izango da ikusgai, eta 5 urtetik gorako haurrentzat da aproposa. Musikalari ospetsuek sortuko dute umeekin batera orkestra pepinofoniko bat, barazki musika tresnekin.

Txan magoa

Magia ikuskizuna eskainiko duen aski ezaguna den magoak. Urtarri-laren 2an izango da ikusteko auke-ra. «10 urte nituela, gurasoen ta-bernan, neguko igande batean, ile-zuriko gizon zahar batek kartekin magia egin zidan eta handik aurre-ra magia da nire mundua».

Niño Costrini

Umorea, zirkoa eta abilezia batzen dituen ikuskizuna eskaintzen du, eta utarrilaren 3an izango da ikuskizuna. Gogoetarako ere utziko du tarteak, beti ere txantxa moduan mozorrotuta.

Puzgarriak eta haur iolasak

Zerkausian jarriko dituzte, hilaren 26an, 27an eta 28an, hau da, datoren asteazketetik ostiralera, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:30era, eta bideojoakoak, aerogiroa, trizikloak, Santa Fe tren eta a puzgarriak eta ludoteka gunea egongo dira.

2x1

LEHENE ETXEBERRIA
-AKTOREA-

GERO ETXEBERRIA
-AKTOREA-

euskaltel
zuretzat

Gabonetan,
2x1
Linea Doan

eskuratu bi mugikor 0€-ren truke
nahi beste hitz egin
eta erabili linea bat doan.



zurZOptik.de
bekanntgemacht.

Eskorta informazioa **1717** zenbakia deituta edo Euzkaleren webgunean[illegible]

Orfeoiaren Eguberrietako kontzertu berezia bihar, Leidorren

Musika » Amaia Arberas sopranoak eta Jon Plazaola tenoreak hartuko dute parte; 20:30etik aurrera izango da emanaldia

ERREDAKZIOA

Tolosako Orfeoiak urtero garai hauetan egiten duen moduan, Eguberrietako Kontzertua eskainiko du bihar Leidor aretoan, 20:30etik aurrera. Bertarako sarrerak, Leidorren bertan, edo Tolosako Kultur Etxean eskura daitzeko 10 euroren truke.

Kontzertuaren lehenengo zatian Offenbach, Mozart, Bizet, Federico Chueca, Chapi eta Olaizola konpositoreen opera aria eta zartzueletako pieza ezagunekin osatutako errepertorioaz gozatzeko aukera izango da, eta bukatzeko, Eguberrietako pieza ezagunei hel-

duko diete. Amaia Arberas sopranoak eta Jon Plazaola tenoreak ere parte hartuko dute Ignacio Ruiz de Alegria maisuaren zuzendaritzapean.

Amaia Arberas sopranoa

Artista handiak izango dira, beraz, Tolosako Orfeoiarekin batera biharko kontzertuan. Amaia Arberasek urriaren 25ean New Yorkeko Queen Sofian eskaini zuen kontzertua. Amaia hiri hartan ari da ikasten eta hobetzen bere gaitasun musikalak, eta, esan behar da, hango kritika musikalek goraipatu egiten dutela.

Jon Plazaola tenorea

Jon Plazaolaren jardura bereziki tenore liriko-arineko errepertorioan murgiltzen da. Bartzelonako L'auditori, Gran Teatre del Liceu eta Palau de la Música kadenboraldietan parte hartu du, Sevillako



Tolosako Orfeoiak Leidorren eskainitako kontzertu bateko une bat. J. SAIZAR

Maestranza antzokian, Modenan, Bolognan, Genoan, Milanen, eta beste hainbatetan bezala. Opera eta zartzueletako pertsonaia handiak interpretatu ditu: Don Giovanni, L'elisir d'amore, El Caserio, Katiusha, eta abar.

» DATUAK

- **Kontzertua.** Bihar eskainiko du Eguberrietako Kontzertua Orfeoiak, Leidorren 20:30ean.
- **Partaideak.** Amaia Arberas eta Jon Plazaola ere ariko dira.

Bestalde, biharko kontzertuaz gain, Donostiako Victoria Eugenia Antzokian ere abestuko dute larunbat honetan Tolosako Orfeoiak kideek, hain zuzen ere, Donostiako Jaiotzazaleen Elkartearentzat Eguberrietako Pregoian.



232 sinadura dagoeneko

LIZARTZA » Lehen igandean 232 firma bildu zituzten Lizartzan, «Regina Otaolak eragin duen egoera antidemokratikoaren aurka». 500 herritar inguruk dauka idatzia sinatzeko ahalmena eta ia erdira iritsi ziren lehen igandean. Abenduaren 23an, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara idatzia sinatzeko bigarren aukera egongo da. ANDER OTEZABAL



Abenduan, kulturaz blai

IBARRA » Loatzko Musika Eskolaren Eguberrietako emanaldia egon zen atzo Kultur Etxean, abenduaren barnean antolatu diren kultur ekitaldietan. Gaur berriz, Kutxa Gizarte Ekintzak babestutako Mila Gallastegi eta Asier Aranzabalak *Trekking Sahararen Bihotzean* ikus-entzunezkoaren emanaldia egongo da 19:30ean, Benito Izagirre kultur etxean. ASIER IMAZ



Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Tolosa: San Estebanen, bi gelako etxebizitza berritua, igogailuarekin.

Tolosa: Berazubi, berritutako etxebizitza, kanpoaldera, bista ederrak.

Tolosa: Berazubi, 90m²ko etxebizitza, egocera onean, altzariekin.

Tolosa: Aldaba auzoa, 3 pisutako adosatu, lursailarekin, 297.000 euro.

Tolosa: Larramendi, etxebizitza 4. pisuan, igogailua, egoera bikaina, garajea aukeran.

Tolosa: Aldaba auzoa, 3 pisutako adosatu, lursailarekin, 297.000 euro.

Tolosa: Errementari kalea, hirugarren solairua, 3 logela, berritua.

Tolosa: Nafarroa Etorbidea, 2. solairuan etxebizitza, 90m² erabilgarriak ditu.

Tolosalde: Baserria, 10.000m²-ko lursailarekin, konpontzeko.

Tolosa: Belatan, garaje itxiak salgai 18m²ta-tik hasi eta handiagoak, obrak hasita daude.

Abaltzisketa: Etxebizitza polita altzariekin. Ikuspegi ezin hobea. Bi ibilgailuentzako garajea.

Albztur: Konpondutako baserri polita, 13.000m²-ko lursailarekin.

Alegia: Eraiki berriak, 13 etxebizitza, 1 eta 2 logeletakoak, trastelekuarekin, 179.800 euro-tatik.

Altzo: 75m²-ko planta duen bi pisutako borda, 10.000m²-ko lursaila.

Altzo: Etxea salgai, konpontzeko, 3 etxebizitza egiteko lizentziarekin, 10.000m² lursaila.

Anoeta: Etxebizitza harrizko baserrian, konpontzeko, 90m².

Irura: Etxebizitza, atikoa, 3 logelarekin eta kanpoaldera begira. Oso eguzkitsua da. 237.500 euro.

Zegama: Baserria, irisgarritasun ona, 70.000m²ko lursailarekin.

Atsaureen kalejiraren prestaketak aurrera doaz

Leitza » Joan den ostiralean 2008ko atsaureen kalejiraren inguruko bilera egin zuten Aurreraren egoitzan

NAIARA GARZIA

Atsaureen kalejiraren inguruko ekimenak aurrera jarraitzen du. Leitzako inauteriak dagoeneko uste baino gertuago daude, hori dela eta joan den ostiralean Aurrera elkartearen bilera egin zuten. Orotara bi bilera egin zituzten, lehenengo igandean aterako diren karrozzen inguruko eta bigarrena atsaureen kalejirari buruzkoa.

15 edo 20 lagun inguru bildu ziren ostiralean. Agustín Aranburu ere bertan izan zen eta beste bilera bat egitekotan gelditu direla azaldu du. «Lehenago ere beste bilera bat egin genuen, duela hilabete pare bat inguru, orduan 40 lagun inguru bildu ginen. Ostiralean, ordea, ordezkakoak etorri ziren, adibidez, lagun bat bosten ordezkari, edo 2 hamarren ordezkari».

Ostiraleko bilera eta gero printzipioz kalejira asteartean egingen dutela erabaki dute, baina esan bezala, oraindik beste bilera bat egingen dute. «Ziurrenik inauteriak hurbiltzen diren heinean jende gehiago animatuko da, hori gertatzen baita horrelakoetan. Ehiza garaian ere bilera bat egingen dugu udan, eta 20 bat lagun biltzen gara. Gero irailean beste bilera bat egingen denean beti jende gehiago etortzen da».

Mozorroa

Agustín Aranburu jada udaberrian hasi zen garai bateko atsaureen txapelak egingen eta 8 inguru egin ditu. Horietakoa bat ostiralean Aurreraren eraman zuen eta hantxe atsauretu zen, bertaratutakoek mozorroa ikus zezaten.

Aranburuk txapelak lan handia eskatzen duela adierazi du. «Aurrera alantzearekin armazobea egin behar duzu, gero koloreetako paperak ekarri, moztu eta kolorekin itsatsi. Gero lumak dagoz, eta gainean nik olentzeroa jarri dut».

Pisu dezentea du, beraz. Antza denez, lehenago goian panpinen bat jartzen zuten, «ez dut uste orduan Olentzerorik izaten zenik», dio Aranburuk. «Halere bakoitzak txapela nahi duen bezala egin dezake. Nik 8 inguru egin ditut, azkeneko mementuon beti batzuk korrika ibiltzen direlako».

Hanketako zintzarriak ere erabat atsauretzeko ezinbestekoak dira. «Behe xamarrean jarri behar dira, oinez zoazela soinu atera dezaten». Atsaureek ere tunika bat jantzen zuten «kolore batekoak, edo hainbat koloretakoak, loreekin egindakoak esaterako». Eta aurpegia estalita eramaten zuten. «Azpian uste dut kareta bat izaten zutela, gainetik estalia».

Agustín Aranbururi lehengusuek azaldu zioten lehenago nola atsauretu ziren, eta ordungo argazki zahar bat ere badu. «Honela 6 lagun bakarrik ateratzen omen ziren, tartean nire atea». Hortik aurrera entzundakoa eta argazki horretan oinarrituta egin du mozorroa.

Atsaureen historia

Aranburuk atsaureen historia azaldu du. «Hori gure osabak, atek eta auzokoek ateratu zuten. Gerra aurrean gure ategaztea zela atsauretu zen, eta ondoren noizbait ere bai. Orduan, gerra ondoren, ez zen libre izaten mozorrotzea, baina ba omen zen alkate bat atsauretu zen utzi ziena».



Agustín Aranburu atsauretua, joan den ostiralean, bileran. N. GARZIA



Hernandorena, Olano, Jaunarena eta Aldaregia, ezkerrean. HITZA



Sagastibeltza Lasarte eta Saralegi larunbatean, Atarrabian. HITZA

Nafar Jokoetako lehenengo itzulian bi final Aurrerarentzat

Pilota » Haur-kategoriako lehenengo mailako finala Burlatan jokatu zuten eta Aurrerako 2 bikoteen artekoa izan zen

ERREDAKZIOA

Gabonak iristearrekin batera amaitu da Nafar Jokoen lehenengo itzulia eta joan den asteburuan jokatu zituzten azkeneko finalak. Aurrerako pilotariak 2 finaletan parte hartu zuten, hasiberrien lehenengo mailakoan eta haur-kategoriako lehenengo mailakoan, eta biak irabazi zituzten. «Urtarrilaren erdi aldera bigarren itzulia hasiko da», dio Pakito Sagastibeltza pilota eskolako arduradunak.

Nafar Jokoen barruko finalak Atarrabian eta Burlatan jokatu zituzten. Atarrabian, Sagastibeltza Lasarte eta Saralegi (Aurrera A), Andueza eta Mariezkurrenaren

aurka (Oberena A) aritu ziren eta 18-10eko emaitzarekin irabazi zuten.

Burlatako Askatasuna pilotalekuan jokatu zuten beste finala berezi xamarra izan zen Aurrerako pilotarietaz, talde honetako 2 bikoteraren arteko finala baitzen: Xabier Jaunarena eta Joxerra Aldaregia Anartz Olano eta Mikel Hernandorenaren aurka lehiatu ziren, eta azken hauek irabazi zuten, 2 tantorengatik (16-18). «Partida polita eta tagogorra izandu zen» dio Sagastibeltzak.

Aimar Ansalotek, berriz, Lizarrako Txapelketako finalaurrekoa irabazi zuen Saizen aurka.

Gabonetako txapelketa

Aurreratik jakitera eman denez, Lizarran jokatzeko den Eguberrietako Txapelketarako bertako 3 pilotari aukeratu dituzte: Jon Jaunarena, Anartz Olano eta Mikel Sagastibeltza Lasarte.

Hilberria

JUAN GURIDI MOYUA
(Urtzi Ibarguren gure lankidearen aitona)



Une latz hauetan
bat egingen dugu
familiaren saminarekin

Elizkizuna gaur izango da, Fatimako Andre
Maria Parrokian, arratsaldeko 19:00etan.

ETXERAINO

ERRETERIA
2007ko
abendua 19a

M^a BEGOÑA IRASTORZA AARTOLA

Atzo hil zen, 64 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapenari hartu ondoren

«Golan bego»

Bere arimaren zuzendaria: Emeterio Sorazu; senarra: Juan Bautista Barriola; seme-alabak: Jon, Joseba eta Aiaritza; Joseba: biolabak: Aimar eta Mireia; anai-arrebak: Manoli (?) eta Eusebio Oria, Pakita (?) eta Lukas (?) eta M^a Jesus Urdampilleta; ezkon anai-arrebak: Iliobak, lehengusuek eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otituz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitzela GAUR ASTEAZKENEAN, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN BARTOLOME parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Zumartetxe Baseria (Izaskun auzoa).
OHARRA: Gorputz belia Tolosako Funeraria Vascongada Tanatorioan egingo da, ASTEAZKENA arratsaldeko 16:30ak arte.



IBARRA
2007ko
abendua 19a



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldekehohitza.info.
Webgunea: www.tolosaldekehohitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailera:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldekehohitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldekehohitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldekehohitza.info.
Anoetalde: 687 410 022. anoetalde@tolosaldekehohitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldekehohitza.info.
Alegialde: 687 410 034. alegialde@tolosaldekehohitza.info.
Leizalde: 687 410 118. leizalde@tolosaldekehohitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai
Euskarari**

'Hitz'a' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu Ibarra, Ikaztegieta Iruia, Ieaburu, Ieizta, Iizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurki

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Dejaldiak

■ **Villabona-Zizurkil.** Malkar astialdi taldeak Villabona eta Zizurkilgo 18 eta 19 urteko gazteei sendotza prozesua hasteko deia egingen die, Satorran 18:30ean egingo den bilerara.

■ **Tolosa.** 2007ko Tolosako Kiro-lari Onenak ekitaldia Leidor areto-an 19:30ean. Ondoren lunch txikia.

■ **Zizurkil.** *Ipuin ordua* Maite Francorekin Atxulondo kultur etxean 18:00etan, 8 eta 12 urte arteko haurrentzat.

Hitzaldiak

■ **Tolosa.** Patxi Gonzalez geologok *Eremu elektromagnetikoak eta osasuna* izeneko hitzaldia emango du, 19:00etan Kultur Etxean. Antolatzailea: Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlana.

■ **Tolosa.** Juan Karlos Alonso psikologoak *Haur literaturaren eragina haurraren garapenean* hitzaldia emango du Haur Liburutegian 18:30ean.

Musika

■ **Tolosa.** Amaroazko auzo elkartearen lokaletan Eduardo Mocoroa Musika Eskolako ikasleen kontzertua 19:00etan

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria. 46. 943 673274

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak




Zorionak!

Herrian ez hago baina bai egunero gure bihotzetan. Maite haunagu!!



Urte askoan

Ana Belen (Elduain). Te keremos mutxo mutxo koma la trutxa al trutxo.



Urte askoan!

Nahia Dominguez Iribarren (Tolosa). Gaur 11 urte. Mila kilo zorion etxekoan partetik.



Urte askoan!

Maialen Berasategi (Tolosa).
Gaur 8 urte. Aitatxo, amatxo eta zure ahizpa Izaskunen partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

[illegible]